# Urteko 20. Igandea C

# 39. Salmoa

*L.a. 92 / S.a. 4*




**Entzun, Jainkoa, otoi, entzun!**
**Zatozkit, Jauna, laster lagun!**

Beha nindagon, Jauna, beha:
Eta ukurtuz entzun daut entzun intzirea.
Harek zilotik nau atera,
Lohi putzuen barnetik eman argitara.
Harri gainean nau ezarri,
Nere urratsak nausi dabiltzan guzieri.

Kantu berri daut ahoratu,
Jainko Jaunaren alderateko esker-kantu.
Ainitzek dute ikusiko,
Eta beldurrez Jaunaren baitan sinetsiko.

Dohakabe naiz, ezindua,
Bainan Jainkoak niganat luze du eskua.
Zu zaitut lagun, zu laguntza:
Zatozkit laster, ez otoi, Jauna, otoi, luza!

Tout droit proprité de l'Abbaye de Belloc
Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzeder O.S.B. ; Airea : Gabriel Lerchundi O.S.B.